

6 mantangorri

IRAKURRI, ETA ONDO PASA!




LIBURUA

'Txanogorritxoren eskularruak'

Txanogorritxoren istorioa kontatzen da liburuan. Ez da denok ezagutzen dugun istorioa, ordea, gauza bitxi pila bat gertatzen baitira ipuinean: hasteko, elurra egiten du, eta txanogorritxoren ipuinean sekula ez du elurrik egiten; Txanogorri amonari eraman beharreko saskia ahaztu zaio; ez zaio otsorik agertu bidean... Bai gauza bitxiak gertatzen direnak ipuin honetan. Txo! bildumako liburua da Txanogorritxoren hau.

Ines Almagro
Mikel Mardones

Argitaletxeak: **Txalaparta**
eta OQO



DVD-A

'Dinbi-danba'

Indioen eta bakeroen film bat grabatzear direla, platoan elkartu dira Hipotolomeo garbitzailea eta Tomax zaindaria. Inor barrura ez sartzeko sarrera zaintzea izango da Tomaxen ardura; Hipok, berriz, platoa txukun-txukun garbitu beharko du. Gainerakoan, ezer ez ukitzeko agindua dute. Ezin izan diote tentaldiari eutsi, ordea, eta, ohi bezala, bazterrak nahasten hasi dira, protagonista eurak balira bezala. *Dinbi-danba* ikuskizuna DVDan jaso dute pailazoek.

Argitaratzailea: **Bioznar**
produkzioak

DENBORA-PASAK

1. Egia ala gezurra

Ezaguna egiten al zaizu argazkiko pertsonaia? Ea, irakurri argibideak. Guztiak ez dira egiazkoak, e!

Asmatu zein esaldi diren zuzenak eta zein ez, eta, ondoren, zein den pertsonaia.




EGIA GEZURRA



Zarauztarra da jaiotzez.	<input type="checkbox"/>
Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen 1980an.	<input type="checkbox"/>
Kontxako lau bandera irabazi ditu.	<input type="checkbox"/>
1949an jaio zen.	<input type="checkbox"/>
Kaikun ari da entrenatzen gaur egun.	<input type="checkbox"/>
Realean jokatu zuen.	<input type="checkbox"/>

2. Itzalak

Txokolatzeko tarta aparta irten zaio Patatari gozogileari, eta hori adierazten du bere eskuaren keinuak. **Bilatu Patatariren eskuaren itzala, azpian dauden itzalen artetik.**



Erantzunak

1.- Jose Luis Kortza da pertsonaia. 2., 4. eta 5. esaldiak dira zuzenak. 2.- d.